



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren behin betiko onarpena.

Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza orokorraren behin betiko onarpena.

Basauriko Udalaren Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 30ean egindako ohiko batzarrean, honako hau erabaki zuen: Behin behineko onarpena ematea Basauriko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza orokorrari.

Jendurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, aipatutako osoko bilkuraren erabakia behin betiko bihurtzen da automatikoki.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 eta 65. artikulua betez, Ordenantzaren testu osoa argitaratzen da, legezko ondorio guztietarako eta, bereziki, indarrean sartzen denerako.

Basaurin, 2024ko uztailaren 26an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**BASAURIKO UDALAREN DIRULAGUNTZEI
BURUZKO ORDENANTZA OROKORRA**

ZIOEN AZALPENA

I.

2004ko abenduaren 28an eginiko ohiko bilkuran, Basauriko Udalak erabaki zuen behin betiko onartzea Udal Dirulaguntzei buruzko Ordenantza, eta argitaratu zen 2005eko urtarrilaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (14. zk.).

Ordenantzak garatu zuen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Basaurin aplikatzeko. Hala ere, 18 urte baino gehiago igaro dira ordenantza indarrean sartu zenetik, eta orduz geroztik hainbat lege-aldaketa izan dira, era batera edo bestera dirulaguntzak emateari eragin diotenak. Hala, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra berak aldaketa partzialak izan ditu; azkena, duela gutxi: 1/2023 Legea, otsailaren 20koa, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzkoa. Era berean, haren artikulua batzuk Konstituzio Auzitegiaren epaien xede izan dira: ekainaren 4ko 130/2013 epaia, ekainaren 6ko 135/2013 epaia, abenduaren 5eko 206/2013 epaia, irailaren 25eko 152/2014 epaia, apirilaren 14ko 70/2016 epaia eta apirilaren 12ko 33/2018 epaia.

Gainera, bere garaian, aipaturiko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua eman zen, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez, Udal Ordenantza onartu ondoren. Erregelamendu horrek hainbat berrikuntza ekarri zituen, horietako batzuk esanguratsuak: hala nola Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren (BDNS) erregulazioa; gaur egun indargabeturiko eta hura arautzen duen araudiak ordezturiko artikulua; 130/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, arautzen dituena BDNSa eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publikotasuna, kontuan hartu beharrekoa udal-araudiaren erreformari ekitean.

Bestetik, lege hauek egin dira: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Lege horiek finkatzen dute pertsonen eskubidea administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko. Halaber, aipatzekoa da sektore publikoan baliabide elektronikoen bidez jarduteari eta funtzionatzeari buruzko Erregelamendua, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua bidez onartua.

Horiek horrela, pentsatu da egokiagoa dela aipaturiko lege-berrikuntza guztiak jasoko dituen ordenantza berri bat egitea egungoa berritzea baino. Bigarren aukera hori irtenbide bat izan liteke ordenantza egokitzeko lege-erreforma zehatz batera, baina ez dirudi proposena denik gaiaren osotasunari eragiten dioten erreforma sakonagoak egiteko.

Gainera, ordenantza berriaren bidez, hobetu egin nahi dira, ahal den neurrian, administrazio-prozeduren gardentasuna eta eraginkortasuna.

II

Ordenantza berria honela egituratzen da: Atariko Titulua, hura garatzen duten lau Titulu, Xedapen Gehigarri bat, Xedapen Iragankor bat, Xedapen Indargabetzaile bat eta bi Azken Xedapen, gehi Eranskin bat (dirulaguntzen xedea jasotzen duena, besterik ezean Basauriko Udalak emandako dirulaguntzen oinarri orokorrak izateko bokazioz idatzia).

Atariko Tituluari dagokionez, I. kapituluak arautzen du ordenantzaren aplikazio-eremua, haren aplikazioa zabaldurik bai Udalera bai haren Erakunde Autonomoetara, eta gaineratzen du Behargintza Basauri – Etxebarri S.L. eta Bidebi, S.L. sozietate publikoek eman ditzaketen dirulaguntzak egongo direla ordenantzan jasotako kudeaketa- eta informazio-printzipioen mende. Era berean, aplikazio-eremuaren perimetroa hobetzen da, baztertutako jarduketak eguneratuz.

II. kapituluan, dirulaguntza publikoen xedapen orokorrei buruzkoan, printzipio orokorrak aurreko erregulazioan ezarritakoen antzeko baldintzetan jasotzeaz gain, eguneratu



egiten da Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren erregulazioa, kontuan izanik geroago sortutako araudia, eta ezartzen da beharrezkoa dela dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek aipatzea dirulaguntzen zein Plan Estrategikotan txertatzen diren, adieraziz nola laguntzen duten haren helburuak lortzen; bestela, arrazoituz zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, baita Planean aurreikusi ez denean ere, bai eta nola eragiten dion hura betetzeari ere. Hala, motibazioa indartu behar da, azken lege-erreformen ondoren, izaera diskrezional nabarmena duten erabakiei dagokien zerbait. Era berean, ezartzen da zein den horiek onartzeko organo eskuduna (Osoko Bilkura, Artezkaritza Kontseiluak eta Administrazio Kontseiluak, Udalaren, haren erakunde autonomoen edo sozietate publikoen kasuan, hurrenez hurren), eta Aurrekontuekin onartzeko aukera ezartzen da, haien dokumentazioan sartuta. Halaber, plan horien izaera programatiko hutsa ezartzen da.

Dirulaguntzak emateko betekizunei dagokienez, adierazten da aurretik onartu egin beharko direla dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarriko dituzten arauak; arauemaileak dira eta ez dira nahastu behar dirulaguntzen deialdiarekin. Nolanahi ere, aurrekoari gehitzen zaio ezen, besterik ezean, Ordenantza Orokorra hartuko dela dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokortzat. Arautu egiten dira dirulaguntzak emateko eskumena duten organoak, onuradunak eta erakunde laguntzaileak, bai eta xehetasun handiagoz ere halakotzat hartuak izateko baldintzak, bereziki nabarmenduta debeku-kasuak. Bestetik, zehatzago arautzen dira onuradunen eskubideak eta betebeharrak, eta, dirulaguntzen publikotasunari dagokionez, sistema eguneratzen da, egokituta Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (garatu gabea aurreko araudia aldarrikatzean) arautzen duen araudira, eman beharreko informazioaren edukia izanik aplikazio orokorreko indarreko araudian ezarritakoa.

Ex novo aurreikusten da kasu jakin batzuetan onuradunek dirulaguntza jasoko duen programa, jarduera edo inbertsioaren publikotasuna ahalbidetu beharra, eta gehitu egiten dira diruz lagundutako jarduera finantzatzeko zenbateko bat exijitzeko aukerari buruzko aurreikuspenak (dirulaguntzaren onuradunek beren gain hartzen dituzten finantza-konpromisoen seriotasun-baldintza gisa), bai eta beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna ere (onargarria, betiere gainfinantzaketarik ez badago).

III

I. tituluak arautzen du dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedura, eta funtsezkoa da ordenantzan, haren garrantziagatik eta hedaduragatik. I. kapituluak laguntzak emateko prozedurei buruzko orokortasunak azaldu ondoren, II. kapituluak xehatzen du dirulaguntzak lehia-araubidean emateko prozedura, deialdiaren edukia zehaztuta eta dirulaguntzak emateko balio dezaketen irizpide lehenetsiak finkatuta. Aurrekontu-programaren ardura duen funtzionarioak txosten bat egin behar du, dagokion dirulaguntza emateko legezotasuna, egokitasuna eta komenigarritasuna egiaztatuz, nahitaezkoa delako, haren izaera diskrezionala dela-eta. Txosten horri erantsi behar zaio aurrekontu-dokumentazioa, eta espedientea aurkeztu behar zaio dagokion Arloko Ordezkaritzaren proposamenarekin batera (hari dagokio ekimen politikoa), gaiaren arabera eskumena duen Informazio Batzordeari, irizpena eman dezan, Udal honetan ohikoa izan den parte-hartze politikoaren adierazpen gisa, Legeak hertsiki horretara behartzen ez duen arren. Behin egiaztatuta eta fiskalizazio-izapidearen ondoren, espedientea Alkatzetara bidaliko da, onar dezan.

Dirulaguntzak lehia-araubidean izapidetzeko prozedurari dagokionez, III. kapituluak arautzen da eta aurrekoaren oso antzekoa da funtsean, ñabardura batzuetan izan ezik: hala nola espedienteen ebazpenaren arauketa zehatzago bat, hainbat kasu aurreikusten dituen (adibidez, ezesten diren eskabideak agerrarazteko beharra, edo baldintza administratibo eta teknikoak betetzen dituzten eta kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzen dutelako aintzat hartu ez diren eskabideen zerrenda sartzeko aukera, eta eskatutako zenbatekoaren zati bati uko egiteko aukera). Ebazpena argitaratzea aurreikusten da, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan, bai eta ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearekin talka eginez gero behar



diren zuhurtasunak ere. Azkenik, espresuki aurreikusten da ebazpena aldatzeko aukera, hura emateko orduan kontuan harturiko baldintzak aldatuz gero.

Zuzeneko emakidaren prozedura arautzen da IV. kapituluari, eta zehatzago arautzen da aurreko ordenantzan jaso ez zen emakida-ebazpenaren edukia. Horrela, segurtasun juridikoa ematen zaie dirulaguntzen jasotzaileei, aldean eskubideak eta betebeharrak zehaztasun handiagoz definitzen baitira. Bete beharreko prozedurari dagokionez, aurrekoaren antzekoa da, praktikan ohikoa zen zerbait aurreikusten badu ere; hau da, salbuespen gisa, Udaltzarak dirulaguntzak zuzenean ematea interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiengatik edo deialdi publikoa zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik. Kasu horretan, espedienteak jasoko du gaiaren arabera eskumena duen organoaren memoria, dirulaguntzen izaera berezia justifikatuz, nahiz eta dirulaguntza emateko erabakiak kontuan izango duen beti Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aurreikusitakoa.

Dirulaguntzen kudeaketa eta, bereziki, jardueren azpikontratazioa zehaztasun handiagoz arautzen dira V. kapituluari, eta mantendu egiten da, besterik ezean, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %50 baino gehiago ez izatea. Horri gehitzen zaio ezin izango dela diruz lagundu, diruz lagundutako jardueraren kostua handituz, jardueraren edukari balio erantsirik emango ez dion jarduerarik. Hirugarrenekin azpikontratatzeke dirulaguntzaren zenbatekoaren %20 gainditzen duten eta 60.000 €-tik gorako jarduerak, ezinbestekoa izango da idatziz egitea diruz lagundutako erakundearen eta hirugarrenaren arteko kontratua, eta Udalak baimentzea, egungo araubidearen arabera. V. kapituluak zehazten du ere onuradunak hornitzaileen hiru eskaintza gutxienez eskatu beharko dituela diruz lagundutako gastuaren zenbatekoak gainditzen dituzenean kontratu txikien legerian ezarritako zenbatekoak, eta justifikatu egin beharko da hautaketa, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera, dagokion justifikazio-memorian. Era berean, aurreikusten da diruz lagundutako jarduerari zeharkako kostuak egozteko aukera, behar besteko zuhurtziaz.

VI. kapituluak xehetasunez arautzen du dirulaguntzen justifikazioa, hiru modalitateen arabera (Justifikazio Kontu Arrunta, Justifikazio Kontua auditoretza-txostenarekin eta Justifikazio Kontu Sinplifikatua), hirugarrena izanik ohikoena, 60.000 €-tik beherako dirulaguntzetan (kuantitatiboki espediente-kopuru handiena sortzen dutenak). Ondoren, justifikazio-prozedura arautzen da, eta fiskalizazio-izapidean funtsean protagonistak izaten jarraitzen dute dagokion arloko teknikariek eta Kontu Hartzailtzak, bai eta korporazioa osatzen duten talde politikoek ere, dagokion Informazio Batzordearen bidez. Horrela, organo horrek, dirulaguntzen deialdi-proiektuak ez ezik, haien emaitza ere ezagutzen du, justifikazio-izapidearen bidez.

Amaitzeko, VII. kapituluak arautzen du dirulaguntzen ordainketa, konturako ordainketak edo ordainketa aurreratuak egitea aurreikusita.

IV

II. tituluak arautzen du dirulaguntzen prozedura, eta zehatz-mehatz xehatzen ditu dirulaguntza emateko ebazpenaren baliaezintasun-arrazoiak (I. kapituluak), itzultzeko arrazoiak eta, lehen aldiz, ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak (objektiboki adierazita haien minorazioa ahalbidetzen duten arrazoiak eta zenbatekoa); azkenik, igortzeke dagoen preskripzioaren institutuaren aurreikuspen bat.

III. eta IV. tituluak (artikulu bakarrekoak) arautzen dituzte, hurrenez hurren, dirulaguntzen finantza-kontrola, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrearen arabera Kontu Hartzailtzari dagokiona, eta arlo honetako arau-hausteak eta zehapenak, generikoki joz bai lege horren edukira bai 39/2015 eta 40/2015 Legeen printzipioetara, biak urriaren 1ekoak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa), bai eta berriki onartutako 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zigorretako Ahalmenari buruzkoa.



V

Xedapen gehigarrien, Iragankorren eta Azken Xedapenen helburua da trantsizio hobeago bat egitea ordenantza berriaren araubide juridikora. Horrela, Lehen Xedapen Gehigarriak arautzen ditu publikotasunaren eta lehiaren mende egonik hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein arlotan dirutan ematen diren sariak eta bekak, orain arte arautu gabeak. Hori horrela, honako hauek ezartzen dira: aplikatu beharreko araubide juridikoa, haien publikotasuna BDNSn, parte-hartzaileen betekizunak eta betebeharrak, deialdiaren edukia, aurrekontuaren izapidetzea eta ordainketa, eta saritutako pertsonen edo bekadunen zerrendaren justifikazioa eta jakinarazpen publikoa.

Xedapen Iragankorrak dies a quo-a ezartzen du ordenantza indarrean sartzean hasita dauden prozeduretarako.

Espresuki indargabetzen da 2004ko abenduan onartutako ordenantza, eta azken xedapenek ordezkotako araubide juridikoa bat finkatzen dute, bai eta hura indarrean sartzea ere, 15 egun balioduneko vacatio legis aldiarekin haren erabateko argitalpenetik.

Azkenik, berritasun gisa, ordenantza berriaren Eranskinean definitzen dira deialdiko dirulaguntzen xede ohikoena eta haien esparrua (dirulaguntzei dagozkien udal-arloak), ordenantzaren aurreikusitakoaren arabera eta besterik ezean Basauriko Udalak emandako dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak izateko bokazioz jasoak.

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA

ORDENANTZAREN APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua. — *Xedea*

Ordenantza honen xedea da oinarri arautzaile orokor batzuk ezartzea Basauriko Udalaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak emateko prozeduran, eta kontuan hartzen du azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO, aurrerantzean) 17.2 artikuluan aurreikusitakoa, alde batera utzi gabe aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan edo dirulaguntza-mota jakin batzuen ordenantza espezifikoen bidez onar daitezkeenak.

2. artikulua. — *Aplikazio-eremu subjektiboa*

1. Ordenantza hau aplikatuko zaie Basauriko Udalak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten dirulaguntzei.

2. Behargintza Basauri – Etxebarri S.L. eta Bidebi, S.L. sozietate publikoek emandako dirulaguntzek eta udal-eskumenen baitan sor daitezkeenek kontuan hartu beharko dituzte ordenantza honetan jasotako kudeaketa- eta informazio-printzipioak.

Nolanahi ere, dirulaguntza horiek lotura zuzena izan beharko dute horiek sortzeko arauan edo estatutuetan jasotako jardueraren xedearekin.

Den-denek sustatu behar dituzte interes publikoa edo soziala duten egitasmoak, eta dirulaguntzen plan estrategikoen barruan kokatu behar dute.

3. artikulua. — *Ordenantzaren aplikazio-eremutik kanpo utzitakoak*

Ordenantza honen aplikaziotik kanpo daude:

- Onuradunak eskatu gabe ematen diren sariak (dagokion deialdiaren araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira).
- Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusitako dirulaguntzak.
- Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 2ko 3/1987 Lege Organikoan araututako dirulaguntzak.
- Udal Araudi Organikoan udal-taldeentzat aurreikusitako zuzkidura ekonomikoak.



- Udalaren eta beste administrazio publiko batzuen arteko diru-ekarpenak, globalki finantzatzeko xede duten administrazioaren jarduera.
- Udalak bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoen alde eginiko diru-ekarpenak, haien aurrekontuak Udalaren Aurrekontu Orokorren barruan daudenean, bai haien jarduera osorik finantzatzeko, bai esleituta dituzten eginkizunen esparruan jarduera zehatzak egiteko, betiere deialdi publiko baten ondorio ez badira.
- Udalak eginiko diru-ekarpenak, kuota arrunt zein ezohiko gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian (Toki Erakundeen elkarteari buruzkoa) aipatzen diren elkarteei.
- Europar Batasuneko, Estatuko edo Autonomia Erkidegoko funtsen bitartez ardaizen direnak. Kontuan hartuko dira kasu bakoitzean aplikagarriak diren arauak.

4. artikulua. — *Kontzeptua*

Dirulaguntzat hartzen da Basauriko Udalak eta 2. artikuluan aipatutako erakunde autonomoek eta sozietate publikoek pertsona publikoei edo pribatuei emandako laguntza ekonomikoa, baldintza hauek betetzen baditu:

- Laguntza izatea helburu jakin bat betetzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat egiteko, jokabide berezi bat hartzeko (lehendik gertatutakoak edo gerora gertatzekoak) edo egoera jakin baterako. Onuradunak bete beharko ditu ezarriko zaizkion betebeharrak eta formalak.
- Laguntza ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe.
- Finantzatutako proiektuaren, ekintzaren, jokabidearen edo egoeraren xedea izatea onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo helburu publiko bat sustatzea.

II. KAPITULUA

DIRULAGUNTZA PUBLIKOEI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

5. artikulua. — *Printzipio orokorrak*

- Dirulaguntza orok izan behar du helburu publiko edo interes sozial bat, toki-administrazioak sustatu beharrekoa. Erabat deusezak izango dira liberalitate hutsean oinarritutako dirulaguntzak emateko erabakiak.
- Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzen badira edo helburu bererako beste laguntzarik lortzen bada arauak baimendutako kasuetatik kanpo, dirulaguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da.
- Ezin izango zaie dirulaguntzarik eman merkatuan lehia askea galarazten duten jarduera ekonomikoei, aintzat harturik lehia defendatzeko Estatuko eta Europako araudia.
- Dirulaguntzen zenbatekoak (bakarka edo beste dirulaguntza batzuekin batera) ez du inola ere gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua.
- Dirulaguntzak kudeatuko dira printzipio hauen arabera:
 - Publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
 - Eraginkortasuna Basauriko Udalaren helburuak betetzean.
 - Efizientzia baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.

6. artikulua. — *Dirulaguntzen Plan Estrategikoa*

- Basauriko Udalak, dirulaguntzak eman aurretik, Plan Estrategiko batean zehaztuko ditu lortu nahi dituen helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, kontuan izanik beti aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren helburuak.



Dirulaguntza bakoitzaren oinarriek adieraziko dute dirulaguntzen zer plan estrategikori dagokien, eta azalduko dute nola lagun dezaketen haren helburuak betetzen. Bestela, azaldu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, baita Planean aurreikusi ez denean ere, eta nola eragiten dion hura betetzeari. Oinarri arautzaile espezifikorik onartzen ez bada eta ordenantza hau oinarri orokortzat hartzen bada, ulertuko da erreferentzia egiten zaiola izaera orokorrez onartutako indarreko Plan Estrategikoari.

2. Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa udalbatzak onartuko du, eta Udalak aurreikusitako dirulaguntza guzti-guztiak jasoko ditu. Udalaren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen kasuan, artezkaritza-kontseiluek eta administrazio-kontseiluek onartuko dituzte. Planaren aurreikuspenak hainbat urtetarako izan litezke, gehienez ere lau urterako, nahiz eta urtero eguneratuko diren.

3. Nolanahi ere, plan estrategikoaren urteko eguneratzea bat etorri ahal izango da aurrekontuen onarpenarekin, eta aurrekontuen agirietan sartuko da.

4. Dirulaguntzen plan estrategikoen izaera programatikoa dute eta haien edukia ez du sortzen ez eskubiderik ez betebeharririk. Dirulaguntza-lerroak abian jartzeak baldintzatuko du planen eraginkortasuna, kontuan izanik, besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideak.

5. Udaleko Kontu Hartzailatza arduratuko da plan estrategikoaren finantza-kontrolaz.

7. artikulua. — Dirulaguntzak emateko baldintzak

Dirulaguntzak emateko, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Dirulaguntzak eman aurretik, onartu egin beharko dira laguntzen oinarri arautzaileak ezartzeko arauak, DLOn eta ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, nahiz eta, besterik ezean, ordenantza hau hartu ahal izango den Basauriko Udalak emandako dirulaguntzen prozeduraren oinarri arautzaile orokortzat.
2. Dirulaguntza-mota bakoitzaren oinarri espezifikoak, halakorik balego, argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.
3. Gainera, dirulaguntzak emateko baldintzak dira:
 - a) Dirulaguntza ematen duen administrazio-organoaren eskumena.
 - b) Kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza emateak dakartzan bete-behar ekonomikoak betetzeko.
 - c) Dirulaguntza emateko prozedura izapidetzea ordenantza honen eta aplikatu beharreko gainerako arauen arabera.
 - d) Aldez aurretik fiskalizatzea eduki ekonomikoa duten administrazio-egintzak.
 - e) Organo eskudunak gastua onartzea.

8. artikulua. — Dirulaguntzak emateko eskumena duten organoak

1. Basauriko Udalaren kasuan, Alkatetza da dirulaguntzak emateko organo eskuduna, alde batera utzi gabe toki-araubideari buruzko legeriaren arabera egin ditzakeen eskuordetzeak.

2. Erakunde autonomoen eta sozietate publikoen kasuan, dirulaguntzak emango dituzte erakunde horien estatutuen arabera eskumen hori duten organoek; bestela, erakunde autonomoaren artezkaritza-kontseiluak edo sozietate publikoaren administrazio-kontseiluak.

9. artikulua. — Onuradunak

1. Dirulaguntzen onuradunak hartuko dira diruz lagundutako proiektua edo jarduera garatzeko gaitasuna duten pertsonak edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran daudenak, deialdietan ezarritako baldintza espezifikoak bete beharko badira ere.



2. Deialdian edo hitzarmenean espresuki adierazten bada, onuradun izan daitezke pertsona fisikoen edo juridikoen elkarteak, publikoak nahiz pribatuak, ondasun-erki-degoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, baldin eta, nortasun juridikorik ez izan arren, proiektuak, jarduerak edo jokabideak gauzatu baditzakete edo dirulaguntza ematea eragin duen egoeran badaude.

Nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak direnean (publikoak nahiz pribatuak), espresuki adierazi beharko dira, hala eskabidean nola dirulaguntza emateko erabakian, elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko bere gain hartutako konpromisoak, bai eta horietako bakoitzeko aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahal-dun bakar bat izendatu beharko da, ahalorde nahikoarekin, elkarteari pertsona onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko. Elkartea ezin izango da desegin Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. eta 65. artikuluetan aipatutako preskripzio-epea igaro arte.

Elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak zehazten ez badira, ulertuko da elkarteko pertsona guztiek erantzukizun solidarioa izango dutela hartutako konpromisoetan.

10. artikulua. — Erakunde laguntzaileak

1. Erakunde laguntzailea izango da, dirulaguntza ematen duen organoaren izenean eta haren kontura jardunez, onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkiena, deialdian edo hitzarmenean hala ezarrita dagoenean, edo dirulaguntza kudeatzen laguntzen duena, funtsak entregatu eta banatu gabe. Funts horiek ez dira inola ere hartuko haren ondarearen osagaitzat.

2. Erakunde laguntzailetzat har daitezke organismoak eta gainerako erakunde publikoak, administrazio publikoek osoki edo nagusiki partaidetutako merkataritzazozietateak, zuzenbide publikoko organismoak edo entitateak, eta ezarritako kaudimen- eta eraginkortasun-baldintzak betetzen dituzten gainerako pertsona juridiko publiko edo pribatuak.

3. Erakunde laguntzaileen betebeharrei eta haiekin sinatu beharreko hitzarmen eta kontratuei dagokienez, bete egingo da dirulaguntzen araudi orokorra.

11. artikulua. — Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko baldintzak

1. Onuradun edo erakunde laguntzaile izan daitezke proiektua edo jarduera egiten dutenak, laguntza ematea legitimatzen duen egoeran daudenak edo deialdian aurreikusitako inguruabarrak betetzen dituztenak.

2. Ezin izango dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatutako egoeran daudenak.

3. Era berean, ezin izango dira pertsona edo erakunde onuradun izan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako egoeran daudenak.

4. Dirulaguntzak lortzeko debekuak enpresei ere eragingo die, uste bada enpresa horiek, zuzentzen dituzten pertsonengatik edo beste arrazoi batzuegatik, debeku hori duten beste enpresa batzuen jarraipena direla edo haien eraldaketagatik, bat-egitetik edo ondorengotzagatik sortu direla.

5. Ezin izango dira inola ere onuradun izan elkartzeko eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoak dirulaguntzak jasotzea ukatzen dien elkarteak.

6. Eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen baten bidez justifikatu beharko du onuradun izateko debekurik ez duela, eta adierazpen horretan espresuki adieraziko du ez dagoela edozein administrazioaren esku dauden bere datuak Basauriko Udalak edo haren erakunde autonomoek kontsultatzearen aurka, albo batera utzi gabe Basauriko Udalak edo haren erakundeek adierazpenaren egiazkotasuna ikertzeko duten ahalmena.



Dirulaguntza eskatzeko eta emateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, Basauriko Udala oinarrituko da bitarteko telematikoen bidez Administrazio Publikoetatik jasotako informazioan.

7. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikulua 3 bis atalean ezarritako kasuan (30.000 eurotik gorako dirulaguntzak), zuzenbide publikoko erakundeez bestelako pertsona fisiko eta juridikoek, merkataritza-eragiketetan berankotasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen mende daudenean, egiaztatu egin beharko dute bete egiten dituztela lege horrek ezarritako ordainketa-epeak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.

12. artikulua. — Onuradunen eskubideak eta betebeharrak

1. Pertsona edo erakunde onuradunek eskubidea dute eman zaien zenbatekoa kobratzeko, dagokion deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarri diren moduan eta baldintzetan. Era berean, deialdiak debekatu ezean, aukera izango dute dirulaguntza ematen duen organoari eskatzeko, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, emakida-ebazpena alda dezala, ezarritako epeak luzatzeko, emandako zenbatekoa txikitzeko edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatzeko, aldaketa horiek beharrezkoak badira ustekabeko eta ondo justifikatutako arrazoiengatik edo jarduera behar bezala egiteko, betiere funtsean aldatzen ez bada dirulaguntzaren xedea edo helburua eta kalte egiten ez bazaie hirugarrenen eskubideei.

2. Deialdiek, hitzarmenek edo emakida-ebazpenek jasotako betebeharrak espezifikoak gorabehera, onuradunen betebeharrak orokorrak izango dira:

- a) Helburua betetzea, proiektua betearaztea, jarduera egitea edo dirulaguntza ematearen oinarrian dagoen jokabidea hartzea.
- b) Justifikatzea dirulaguntza ematen duen organoaren edo, hala badagokio, erakunde laguntzailearen aurrean betekizunak eta baldintzak bete, jarduera egin eta dirulaguntza emateko helburua betetzen dela.
- c) Onartzea Udaleko Kontu Hartzaitzaren, erakunde laguntzailearen (hala badagokio) eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren edo eskumena duten beste organo batzuen finantza-egiaztapen eta kontrol-jarduera. Halaber, onuradunen betebeharrak izango da kontrol-eginkizunak erraztea; bereziki, ikertu beharreko dokumentazioa ikuskarien esku jartzea eta haren kopiak egiteko aukera ematea.
- d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrerak edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea. Jakinarazpen hori egin beharko da lehenbailehen, emandako kopurua justifikatu baino lehen.
- e) Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
Eskakizun hori akreditatu edo egiaztatu egin beharko da dirulaguntza emateko ebazpen proposamena eman aurretik.
- f) Gordeta edukitzea kontabilitate-liburuak, erregistroak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentu guztiak, kasu bakoitzean onuradunari aplikagarri zaion merkataritza- eta sektore-legeriak eskatzen dituenak, bai eta dirulaguntza arautzen duen araudiak eska ditzakeen kontabilitate-egoera eta erregistro espezifikoko guztiak ere, egiaztapen- eta kontrol-ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatze aldera.
- g) Gordetzea jasotako kopuruaren aplikazioa justifikatzen duten agiriak, egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan daitezkeen heinean.
- h) Behar bezala jakinaraztea Basauriko Udalak finantzatzen dituela dirulaguntza jasotako programak, jarduerak edo inbertsioak, baldin eta baldintza hori dagokion deialdian edo hitzarmenean ezartzen bada.
- i) Berdintasunaren arloko araudiaren eskakizunak betetzea.
- j) Jasotako kopuruak itzultzea, ordenantza honek eta indarrean dagoen araudiak ezarritako kasuetan.

**13. artikulua.— Dirulaguntzen publikotasuna**

1. Basauriko Udalaren eta haren erakunde autonomoen publizitate sistemak aintzat hartuko du Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren araudia.
2. Informazio hau emango zaio Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari:
 - a) Dirulaguntza arautzen duten oinarriak.
 - b) Deialdiaren laburpena.
 - c) Aurrekontu-partida.
 - d) Dirulaguntzaren helburua.
 - e) Onuradunen nortasuna.
 - f) Emandako dirulaguntzen zenbatekoa eta ordainketa-data.
 - g) Itzulketak.
 - h) Zehapenak (halakorik balego).

Era berean, identifikatu egingo dira Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 13. artikulua 2. paragrafoko a) eta h) letretan jasotako dirulaguntzak lortzeko debekuak dituzten pertsonak.

3. Udaleko Kontu Hartzaitzaren ardura izango da informazioa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari ematea.

4. Aurreko guztia alde batera utzi gabe Udalarari eta haren erakunde autonomoen publizitate aktiboaren alorrean dagozkien betebeharrak, aintzat harturik gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea eta gardentasunari, gobernu irekiari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Erregelamendu Organikoa.

14. artikulua.— Dirulaguntzei buruzko onuradunen publizitatea

1. Dirulaguntzen onuradunek publiko egin beharko dute diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo jarduketan finantzaketaren izaera publikoa, oinarrietan edo deialdian ezarritako baldintzetan.

2. Dirulaguntzen onuradunek konpromisoa hartzen dute espresuki aipatzeko Basauriko Udalaren lankidetzara diruz lagundutako jarduerari buruzko publizitate-ekintza eta -plataforma guztietan.

Halaber, udal-finantzaketa hori aipatuko dute, Basauriko Udalaren logotipoa sartuz, diruz lagundutako jardueran sortu edo erabilitako material inprimatuetan, oroitzapen-plaketan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, iragarkietan eta gainerako hedabideetan.

Argitalpenetan, edukiaren erantzukizun-klausula bat ere sartu beharko da, testu honenkin: «Proiektu hau diruz lagundu du Basauriko Udalak, erakunde onuradunarena bada ere, ez beste inorena, haren edukiaren gaineko erantzukizuna». Udal-zerbitzuek udal-logotipoa helaraziko diete onuradunei.

3. Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, euskara eta gaztelania, diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitate gisa eginiko kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, elebidunak izango dira ere diruz lagundutako jardueraren inguruko hitzartze publikoak: euskaraz lehenik eta gaztelaniaz ondoren.

15. artikulua.— Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea

Deialdiak edo hitzarmenak eskatu ahal izango du finantzaketa propiorako zenbateko bat, diruz lagundutako jarduerari aurre egiteko, eta bateragarritasun- edo bateraezintasun-araubidea zehaztuko du helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzeko, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, izan Estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.



16. artikulua.— *Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin*

1. Basauriko Udaletik jasotako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntzekin, deialdiak edo hitzarmenak kontrakorik ezarri ezean.

2. Dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrerera edo baliabide batzuekin batera, ez du inola ere gaindituko diruz lagundutako proiektuen edo jardueren kostua.

3. Erakunde publikoetatik jasotako dirulaguntzek gainditzten badute proiektuaren edo jardueraren kostua eta elkarrekiko bateragarriak badira, onuradunak soberakina itzuli beharko du berandutze-interesekin batera, ordainketa-gutunak erantsita dagokion justifikazioari. Soberakina erakunde-emaleei itzuliko zaie, bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

4. Hala ere, Udala denean gehiegizko finantzaketaz ohartzen dena, eskatuko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, Udalak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

I. TITULUA

DIRULAGUNTZAK EMATEKO ETA KUDEATZEKO PROZEDURAK

I. KAPITULUA

EMAKIDA-PROZEDURA

17. artikulua.— *Emakida-prozedurak: lehia eta zuzeneko emakida*

1. Dirulaguntzak emateko ohiko prozedura oinarrituko da lehia-araubidean. Hori horrela, alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, hurrenkera bat ezartzeko deialdian finkatutako balorazio-irizpideen arabera, eta dirulaguntza esleitu zaie balorazio onena lortu dutenei, baimendutako gastu-mugarekin beti.

Salbuespen gisa eta deialdian hala aurreikusten bada:

- Organo eskudunak hainbanatu egingo du deialdira bideratutako zenbateko osoa, eskaera guztiei erantzuteko.
- Dirulaguntzaren izaera edo helburua kontuan harturik lehia-araubidea erabili ezin den kasuetan, lehia sinplea erabiliko da dirulaguntza emateko. Kasu horretan, funtsak banatuko dira deialdiko baldintzak betetzen dituzten eskabideak jaso ahala, aurrekontu-kreditua agortu arte.

2. Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

- Basauriko Udalaren Aurrekontu Orokorretan era izendunean aurreikusitakoak, hitzarmenetan edo emakida-ebazpenean jasotako baldintzetan.

Dirulaguntza izenduntzat hartzen dira xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna Basauriko Udalaren Aurrekontu Orokorreko gastu-egoeretan zehaztuta dituztenak. Dirulaguntza horien xedea espresuki zehaztuko da dagokion hitzarmenean edo dirulaguntza emateko ebazpenean.

- Emakida edo zenbatekoa lege-mailako arau batek ezartzen duen dirulaguntzak. Arau horren emakida-prozedura erabiliko da.
 - Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak akreditatzen diren bestelako dirulaguntzak, edota deialdi publikoa egitea zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste dirulaguntza batzuk, aplikatu beharreko baldintzak eta konpromisoak ezartzen dituen ebazpen bidez.
3. Ezin izango da eman deialdian zehaztutakoa baino dirulaguntza handiagorik.



II. KAPITULUA

EMAKIDA-PROZEDURA LEHIA-ARAUBIDEAN**18. artikulua. — *Hasiera***

1. Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Alkatetzak onartutako deialdi publiko bidez. Deialdiak honako eduki hau izango du, alde batera utzi gabe ordenantza honetan ezar litezkeen beste alderdi batzuk:

- a) Oinarri arautzaileen aipamena, ordenantza honek eratuak, edo, bestela, dagokion sektore-eremuko ordenantza espezifikoa edo Aurrekontua Betearazteko Arauan sar daitezkeen oinarri espezifikoek eratuak, argitaratu zireneko Aldizkari Ofiziala adierazita.
- b) Dirulaguntzak egozten zaizkien aurrekontu-kredituak, haien gehieneko zenbatekoa erabilgarri dauden kredituen barruan, edo, halakorik ezean, dirulaguntzen zenbateko zenbatetsia.
Salbuespen gisa, aintzat harturik uztailaren 21eko 87/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduaren 58.2 artikuluko arauak, deialdiak ezarri ahal izango du, kreditu erabilgarrien barruan gehienez ere eman daitekeen zenbatekoaz gain, zenbateko gehigarri bat, eta ez da beharrezkoa izango beste deialdi bat egitea zenbateko hori aplikatzeko dirulaguntzen emakidari.
- c) Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa edo, hala badagokio, zenbatekoa zehazteko irizpideak.
- d) Deialdiari dagokion Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren lerroaren aipamena.
- e) Dirulaguntzaren helburua.
- f) Emakida zer araubideren bidez egiten den adieraztea: lehia ala lehia sinplea.
- g) Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatze modua.
- h) Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunen aipamena.
- i) Eskabideak aurkezteko epea eta modua.
- j) Ebazteko eta jakinarazteko epea. Administrazio-isiltasuna negatiboa edo ezesea izango da.
- k) Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak.
- l) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, haien haztapena. Kontuan izanik Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.3.a) artikulua, balorazio-irizpideen baremo osoaren %5arekin gutxienez baloratu behar dira eskatzaileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eginiko ekintzak eta politikak, edo dirulaguntzara aurkeztu den proiektuan genero-ikuspegia txertatzeari loturiko beste alderdi batzuk. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada ehuneko hori neurritz kanpoko delat dirulaguntzak emakumeen eta gizonen egoeran duen eraginari dagokionez.
- m) Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitakoaren arabera.
- n) Pertsona edo erakunde onuradunak bere gain hartzen dituen betebeharrak, orokorrak zein espezifikoa, eta, bereziki, hartu behar dituen neurriak publikitate egokia emateko jardueraren edo proiektuaren finantzaketaren izaera publikoari.
- o) Ordainketa aurreratua eta konturako ordainketak egiteko aukera, eratu beharreko bermeak adierazita.
- p) Hala badagokio, emakida-ebazpena alda dezaketen inguruabar espezifikoa.
- q) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.
- r) Justifikazio-epea eta -modua.



s) Dirulaguntza emateko baldintzen ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak. Irizpide horiek kontuan izan behar dute proportzionaltasun-printzipioa, eta aplikatuko dira zehazteko onuradunak azkenean jaso edo itzuli behar duen zenbatekoa.

2. Alde batera utzi gabe dirulaguntzen deialdi bakoitzak kasu bakoitzean aplikatze-koak diren irizpideak haztatzeko irizpide espezifikoak eta gehigarriak sar ditzakeela, ondokoek irizpide orokor gisa balio ahal izango dute Basauriko Udalak eta haren erakunde autonomoek dirulaguntzak emateko (deialdi bakoitzean garatu beharko dira):

- a) Eskatzailearen gaitasun ekonomikoa.
 - b) Proiektuaren bideragarritasuna.
 - c) Koherentzia ekintzaren justifikazioaren, helburuen eta proposatutako jardueren artean.
 - d) Jardueraren edo proiektuaren berrikuntza, sormena, elaborazio-maila, originaltasuna edo interesa.
 - e) Proiektuan genero-ikuspegia txertatzea.
 - f) Jardueraren edo proiektuaren ondorioen iraunkortasun-maila.
 - g) Beste erakunde batzuekiko koordinazio- eta lankidetzeta-maila.
 - h) Esperientzia antzeko proiektuetan.
 - i) Erakundea osatzen duten kideen kopurua eta jarduerak gizartean duten eragina (jardueretan izena eman duten pertsonen kopurua).
 - j) Pertsona edo erakunde eskatzailearen gaitasun teknikoa eta antolakuntza- eta kudeaketa-gaitasuna.
 - k) Proiektua egokitzea garatuko den ingurunearen gizarte- eta kultura-baldintzetara edo beste baldintza batzuetara.
 - l) Kalitate teknikoa.
 - m) Kalitate artistikoa.
 - n) Pertsona edo erakunde eskatzailearen autofinantzaketa-gaitasuna eta beste finantzaketa-funts batzuk erabiltzeko aukera.
 - o) Proiektuaren edo programaturiko jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema.
 - p) Ekarpina iritzi publikoaren sentsibilizaziori.
 - q) Basauriko herritarrei jardueretan parte hartzeko ematen zaien aukera.
 - r) Boluntarioen parte-hartzearen ehunekoa proiektuaren edo jardueraren garapenean.
 - s) Populazio hartzailearen bizi-kalitatea hobetzea ekar dezaketen formakuntza- edo hezkuntza-alderdiak bultzatzea.
 - t) Diruz lagundutako ekintzaren hartzaileen partaidetza aktiboa.
 - u) Basauritarren parte-hartze maila proiektu osoan.
 - v) Euskararen presentzia eta erabilera proiektuan.
3. Prozedura hau erabiliko da deialdia onartzeko:
- a) Aurrekontu-programaren ardura duen funtzionarioak txosten bat egingo du egiaztatzeko eman beharreko dirulaguntza legezkoa, egokia eta komenigarria dela. Txosten horretan jasoko dira dirulaguntzak Dirulaguntzen Plan Estrategikoan duen aurreikuspena, zer aurrekontu-kredituri egotziko zaion, xedea, baldintzak eta helburua, eta dagokion deialdi-proposamena erantsiko da.
 - b) Kreditua atxikitzeari buruzko agiria erantsiko da, Aurrekontua Betearazteko Udala Arauan ezarritakoaren arabera.
 - c) Espedientea helaraziko zaio, gaiaren arabera eskumena duen Arloko Ordezkaritzaren proposamenarekin, gaiaren arabera eskumena duen Informazio Batzordeari, irizpen nahitaezkoa eta ez-loteslea eman dezan.



- d) Espedientea, onarpen-proposamenarekin batera, fiskalizazio- eta egiazta-pen-izapidearen pean jarriko da, eta Alkatetzari helaraziko zaio, onar dezan eta, ondoren, arauzko publizitatea egin dezan.
4. Pertsona interesdunen eskabideekin batera aurkeztuko dira deialdian zehaztutako dokumentuak eta informazioak, eskatutako dokumentuak Administrazioaren esku daudenean izan ezik; kasu horretan, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua ezarritakoa bete ahal izango du eskatzaileak.
5. Aurreko ataletan xedatutakoaren ondorioetarako, deialdian onartu ahal izango da eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea dokumentu jakin batzuen ordeztu beharko da adierazpen horretan jasotako datuak egiaztatzen dituen dokumentazioa, gehienez ere 15 eguneko epean.
6. Eskaerak deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak 10 eguneko epea emango dio interesdunari, eta adieraziko dio, baldintzak bete ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

19. artikulua.— Dirulaguntzaren zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak.

1. Deialdian adieraziko da dirulaguntzaren banakako zenbatekoa, kontuan izanik dirulaguntzaren xedea.
2. Zehaztu ezin denean, deialdiak finkatuko ditu dirulaguntza zehazteko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, haien haztapena. Irizpide horiek egokituko dira dirulaguntzaren helburura.
3. Dirulaguntza arautzen duen araudiak eskatu ahal izango du finantzaketa propio-rako zenbateko bat, diruz lagundutako jarduerari aurre egiteko. Kasu horretan, egiaztatu egin beharko da diruz lagundutako proiektuari edo ekintzari funts propioak emango zaizkiola, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan arabera.

Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, erreferentziatzen hartuko dira aurkeztutako jardueraren aurrekontua edo ondorengo aldaketak, eta zenbateko hori kalkulatu da jardueraren amaierako kostuaren ehuneko gisa. Hala, balizko gehiegizko finantzaketa publikoa kalkulatzeko, erreferentziatzen hartuko da ekarpen horrek guztizko kostuarekiko izan behar duen proportzioa, bat etorrita dirulaguntza arautzen duen araudiarekin eta deialdiaren baldintzekin. Kasu horietan, proportzionalki egin beharko da itzulketa, jardueraren amaierako benetako kostua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa bada.

20. artikulua.— Instrukzioa

1. Deialdian izendatutako organoari dagokio dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa egitea.
Organo instrukzio-egilea udal-langileek eratu dute, eta ofizios egingo dituzte ebazpen-proposamena egiteko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko jarduerak guztiak.
2. Eskaerak jaso eta izapidetzeko onartu ondoren, behin egiaztatuta kasu bakoitzean eskatutako baldintzak betetzen direla, balorazio-txostena egingo da, dagokion deialdian ezarritako irizpideen arabera.

21. artikulua.— Balorazio Batzordea

1. Hala badagokio, Balorazio Batzordea izendatuko da oinarri espezifikoetan. Bestetik adierazi ezean, batzorde hori osatuko dute gaiaren arabera eskumena duen Informazio Batzordeko kide guztiek, eta azken batzorde horretako idazkaria izango da haren idazkaria. Funtzionario hori ez bada gastua finantzatzen duen aurrekontu-programaren arduraduna, gastuaren arduradunak parte hartuko du Balorazio Batzordearen saioetan, hitzarekin baina botorik gabe.



2. Balorazio-batzordeak, eskaerak deialdiko irizpideen arabera ebaluatu ondoren, txosten edo irizpen arrazoitu bat emango du, balorazioaren emaitza eta eskaeren hurrenkeraz zehaztuta.

22. artikulua.—Ebazpena

1. Alkatetza da deialdi bakoitza onartzeko eta ebazteko organo eskuduna, zeregin horiek eskuordetzeko aukera baztertu gabe.

2. Ebazpena arrazoitu egingo da, eta akreditatu egin beharko dira hartutako erabakiaren oinarriak.

Ebazpenean adieraziko dira dirulaguntza jasoko duen eskatzailea edo eskatzaile-zerrenda eta zenbatekoa, bai eta, hala badagokio, gainerako eskabideak ezetsi egin direla ere.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenak berekin dakar dagokion gastuaren konpromisoa.

4. Deialdian hala aurreikusi bada, dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza eman zaien eskatzaileak adierazteaz eta gainerako eskabideak espresuki ezesteaz gain, jaso ahal izango da ere eskaera guztien zerrenda ordenatu bat, onuradun izateko baldintza administratibo eta teknikoak bete arren deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik baietsi ez diren eskaerenak, adierazita eskaera bakoitzari emandako puntuazioa aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera.

Kasu horretan, onuradun batek uko egiten badio dirulaguntzari, dirulaguntza ematen duen organoak erabakiko du dirulaguntza ematea puntuazioaren arabera hurrengo eskatzaileari edo eskatzaileei, beste deialdi bat egin gabe, betiere onuradunen batek uko eginda nahikoa kreditu liberatu bada.

Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten hamar eguneko epe luzaezinean. Eskatzaileak edo eskatzaileek proposamena onartu ondoren, administrazio-organok emakida-egintza eman eta jakinarazi egingo du.

5. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea ez da sei hilabetetik gorakoa izango, lege-mailako arau batek beste epe bat ezartzen duenean edo Europar Batasuneko araudian hala ezarrita dagoenean izan ezik. Epea zenbatuko da deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera, salbu eta deialdiak bere ondorioak geroko data batera atzeratzen baditu. Prozedura ebazteko ezarritako gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsitzat jo ahal izango dute eskatzaileak.

6. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta dagozkion errekursoak jarri ahal izango dira haren aurka.

7. Ebazpena argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionean, eta erabiliko dira onuradunen publizitatea bermatzen duten beste bitarteko batzuk; hala nola egoitza elektronikoa eta udalaren webgunea. Ez da beharrezkoa izango onuradunaren datuak argitaratzea, baldin eta, dirulaguntzaren xedea dela-eta, izan badaiteke pertsonen ohorea, norberaren intimitatea eta familia-intimitatea errespetatzearen eta babestearen aurkakoa, aintzat harturik maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa (Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoa) eta datu pertsonalak babesteko araudia.

8. Gainera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena argitaratuko da Bazarriko Udalaren gardentasun-webgunean, indarrean dagoen araudiaren arabera, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraituz.

23. artikulua.—Ebazpena aldatzea

1. Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzen badira edo helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik, sarrerarik edo baliabiderik lortzen bada, aldatu ahal izango da dirulaguntza emateko erabakia.



2. Salbuespen gisa, onuradunek eskatu ahal izango diote organo emaileari dirulaguntzaren ebazpena aldatzeko, baldin eta diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatzea aldatzen edo zailtzen duten ustekabeko inguruabarrak sortzen badira edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak badira. Eskaera hori onartu ahal izango da, dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada, kalterik egiten ez bazaie hirugarrenen eskubideei eta jarduera egiteko epea amaitu aurretik aurkeztu bada.

3. Deialdian ezarriko da zer baldintzatan eskatu ahal izango duten onuradunek diruz lagundutako jarduera aldatzea.

III. KAPITULUA

DIRULAGUNTZA ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA

24. artikulua.— Dirulaguntza izendunak

1. Basauriko Udalaren Aurrekontu Orokorrean izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak arautuko dira emakida-ebazpenaren eta, hala badagokio, dirulaguntzak bideratzeko hitzarmenaren arabera (hitzarmen horretan ezarriko dira aplikatu beharreko baldintza eta konpromiso espezifikoak). Emakida-ebazpena edo hitzarmena hartuko da emakidaren oinarri arautzailatzat.

2. Dirulaguntza emateko ebazpenean edo, hala badagokio, hitzarmenaren edukian, honako hauek jasoko dira gutxienez:

- Dirulaguntzaren onuraduna eta haren identifikazio-datuak.
- Dirulaguntzaren xedearen deskribapena.
- Aurreikusitako jarduerak eta aldean konpromisoak.
- Gastua zein aurrekontu-kredituri egozten zaion.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Ordaintzeko epeak eta moduak, konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egiteko aukera, bai eta, hala badagokio, onuradunek aurkeztu beharreko bermeen araubidea ere.
- Onuradunak dirulaguntzaren helburua bete eta jasotako funtsak egoki erabili dituela justifikatzeko epea eta modua.
- Onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioa, hala badagokio.
- Indarraldia, eskakizunak eta baldintzak.
- Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.
- Hitzarmenaren jarraipena egiteko mekanismoak.
- Aplikatu beharreko araubide juridikoa. Hitzarmenaren izaera administratiboa eta haren edukiaren eta aplikazioaren inguruan sor daitezkeen desadostasunak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jartzea.
- Hitzarmena aldatzeko araubidea, hala badagokio.

25. artikulua.— Dirulaguntza izenduna emateko prozeduraren hasiera, instrukzioa eta ebazpena

1. Prozedura hasiko da ofizios edo interesdunak eskatuta, eta ezinbestekoa izango da Udalaren Aurrekontu Orokorrean dirulaguntza izendunaren onuraduna, zenbatekoa eta kontzeptua zehaztea. Prozedura amaituko da emakida-ebazpenaren bidez edo dagokion hitzarmena sinatuta.

Aurrekontu-partida udal-aurrekontuan sartzeak ez du sortuko onuradunaren aldeko eskubiderik, harik eta organo eskudunak, ezarritako prozeduraren ondoren, hitzarmena edo dirulaguntza emateko ebazpena onartu arte.

2. Prozeduraren instrukzioa dagokio prozedura kudeatzen duen administrazio-organuari.



Instrukzio-jarduerak honako hauek izango dira nahitaez:

- Aurrekontu-programaren ardura duen funtzionarioak txosten bat egingo du egiaztatzeko eman beharreko dirulaguntza legezkoa, egokia eta komenigarria dela. Txosten horretan jasoko dira dirulaguntzak Dirulaguntzen Plan Estrategikoan duen aurreikuspena, zer aurrekontu-kredituri egotziko zaion, xedea, baldintzak eta helburua, eta dagokion emakida-proposamena erantsiko da.
 - Dirulaguntza arautzen duen hitzarmenaren edo ebazpen-proposamenaren testua idaztea.
 - Udaleko Kontu Hartzaitzaren fiskalizazio-txostena.
3. Instrukzioa amaitzean, emakida-proposamena edo hitzarmena helaraziko zaio organo eskudunari, onar dezan.
4. Ebazpen-proposamena edo hitzarmena eta espedientean dauden gainerako agiriak bidali ondoren, organo eskudunak ebatziko du dirulaguntza izenduna emateko prozedura. Ebazpenak arrazoitua izan behar du eta onuradunari jakinarazi behar zaio, aitzat harturik administrazio-prozedura erkidea arautzen duen oinarritzko araudian aurreikusitakoa.
5. Dirulaguntza onartzeko, aldeek hitzarmena sinatu beharko dute.

26. artikulua. — Zuzeneko emakidaren beste kasu batzuk

1. Salbuespen gisa, Udalak dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango ditu, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiengatik edo deialdi publikoa zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik.

Horretarako, Udalbatzak onartu beharko ditu mota honetako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak. Hau da:

- Dirulaguntzen xedearen definizioa, adierazita haien izaera berezia, interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak, eta deialdi publikoaren zailtasuna justifikatzen dutenak.
- Aplikatu beharreko araubide juridikoa.
- Onuradunak eta laguntza-modalitateak.
- Dirulaguntzak emateko prozedura, eta onuradunek eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileek dirulaguntzei emandako aplikazioa justifikatzeko araubidea.

2. Behin oinarriak onartuta, dirulaguntza bakoitza emateko espedienteari erantsiko zaio haren organo kudeatzailearen memoria, eta memoria horretan azalduko dira dirulaguntzaren izaera berezia eta interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa akreditatzen dituzten arrazoiak, edo deialdi publikoa zailtzen duten beste arrazoi batzuk.

Dirulaguntza emateko erabakiak kontuan hartuko ditu Udalbatzak onartutako oinarriak, eta gaiaren arabera eskumena duen Informazio Batzordeak alde aurretik txostena eginda, behar bezala arrazoituta egon beharko du, hautatutako proiektua edo proiektuak dirulaguntzaren oinarrietara egokitzen diren adieraziz.

3. Zuzeneko dirulaguntza araudi espezifiko batek ezartzen duenean, arau horrek eta Basauriko Udalari berariaz aplikatu beharreko gainerako arauak arautuko dute.

IV. KAPITULUA

DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK KUDEATZEKO PROZEDURA

27. artikulua. — Azpikontratazioa

1. Onuradun batek azpikontratatu egiten duela ulertzen da hirugarrenekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera egiteko egin behar dituen gastuak kontratatzea.

2. Azpikontratatzea onartuko da espresuki aurreikusita dagoenean dirulaguntzaren deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean. Deialdian, ebazpenean edo hitzarmenean



finkatuko da onuradunak hirugarrenekin azpikontrataturako jardueraren gehieneko ehuneko. Aipatzen ez bada, onuradunak azpikontratatu ahal izango du diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %50 gehien jota.

Ezin izango da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handituz haren edukiari balio erantsirik ematen ez dion jarduerarik.

3. Hirugarrenekin azpikontrataturako jarduerak dirulaguntzaren %20 gainditzen badu eta 60.000 eurotik gorakoa bada, idatziz egin beharko da kontratua, eta Udalak espresuki baimendu beharko du.

4. Ezin izango da kontraturik zatitu, haren zenbatekoa murrizteko eta aurreko atalean ezarritako baldintzak ez betetzeko.

5. Kontratistak onuradunaren aurrean soilik egongo dira behartuta, eta onuradunak bere gain hartuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean.

6. Aurreko atalean aurreikusitakoaren ondorioetarako, onuradunaren erantzukizuna izango da hirugarrenekin hitzarturiko diruz lagundutako jarduera gauzatzean errespetatzea deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean ezarritako mugak, diruz lagun daitezkeen gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokionez, eta kontratistek lankidetzeta-betebeharra izango dute behar bezala egiaztatzeke muga horiek betetzen direla.

7. Onuradunak ezin izango du inolaz ere hitzartu diruz lagundutako jarduerak oso-rik edo zati batean gauzatzea honako hauekin:

- Ordenantza honen 11. artikuluko debekuren bat duten pertsona edo erakundeekin.
- Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeekin.
- Bitartekari edo aholkulariekin, ordainketak definituta daudenean eragiketaren kostu osoaren ehuneko gisa, ordainketa eginiko lanaren edo emandako zerbitzuen merkatu-balioari dagokionez justifikatuta dagoenean izan ezik.
- Onuradunarekin lotura duten pertsona edo erakundeekin, honako egoera haue-
tan izan ezik:
 - Organo emailearen baimena lortzea.
 - Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoak ez gainditzea loturiko erakundeak egini-
ko kostua.
- Deialdi eta programa berean dirulaguntza eskatu eta lortu ez duten pertsona edo erakundeekin.

28. artikulua.— Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta deialdie-
tan edo hitzarmenetan ezarritako epean egiten direnak. Epe zehatzik finkatu ez bada,
gastuak egin beharko dira dirulaguntza eman den urte naturala amaitu baino lehen.

Diruz lagun daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezin izango da inola ere izan mer-
katuko balioa baino handiagoa.

2. Dirulaguntzen deialdian edo hitzarmenean espresuki kontrakoa adierazi ezean,
eginiko gastutzat hartuko da benetan ordaindu dena deialdian edo hitzarmenean zehaz-
tutako justifikazio-aldia amaitu aurretik.

3. Diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoak gainditzen baditu kontratu txikien
legerian ezarritako kopuruak, onuradunak eskatu beharko ditu gutxienez hornitzaileen
hiru eskaintza, obrarako, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa
hartu aurretik, salbu eta, haien ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez badago ho-
riek egiten, ematen edo hornitzen dituen nahikoa erakunderik, edo gastua dirulaguntza
eman aurretik egin bada.

Eskaintzen arteko aukeraketa (justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren
eskaeran aurkeztu beharreko eskaintzak) egingo da efizientzia- eta ekonomia-irizpideen



arabera, eta espresuki justifikatu beharko da memoria batean proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratu ez denean.

4. Diruz lagun daitezke diruz lagundutako proiektua egiteko finantza-gastuak, aholkularitza juridikoko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, peritugastuak eta administrazio-gastu espezifikokoak, baldin eta lotura zuzena badute diruz lagundutako jarduerarekin eta ezinbestekoak badira jarduera behar bezala prestatu edo gauzatzeko, eta deialdian edo hitzarmenean hala aurreikusten bada. Salbuespen gisa, diruz lagundu ahal izango dira banku-bermearen gastuak, hala aurreikusten duenean deialdiak edo hitzarmenak.

Inola ere ez dira diruz lagunduko:

- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, errekarquak eta administrazio- eta zigor-zehapenak.
- Prozedura judizialen gastuak.

5. Diruz lagundutako jardueraren onuradunak egotzi beharko ditu zeharkako kostuak, arrazoizko neurri batean, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera eta kostu horiek jarduera benetan egin den aldiari dagozkion neurrian. Zeharkako kosturik egonez gero, deialdian edo hitzarmenean ezarriko da jarduerari egotz dakiokeen zeharkako kostutzat hartzen den jardueraren kostu osoaren ehunekoak. Nolanahi ere, ehuneko hori, behar bezala justifikatzen ez bada, ezin izango da izan udalak emandako dirulaguntzaren %13 baino handiagoa.

V. KAPITULUA

DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

29. artikulua.— Dirulaguntzen justifikazioa

1. Dirulaguntzaren onuradunak nahitaez justifikatu behar du dirulaguntza, eta egiaztatu egin behar du bete egin direla dirulaguntza-emakidan ezarritako baldintzak eta helburuak.

2. Justifikazioa dokumentatu egingo da hurrengo artikuluan aipatutako modalitateen batean, deialdian edo hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

3. Dirulaguntzak justifikatzeko epea deialdian zehaztutakoa izango da, eta gehieenez ere 3 hilabetekoa, kontatzen hasita jarduera egiteko epea amaitzen denetik, deialdian edo hitzarmenean beste epe bat ezarri ezean.

4. Dirulaguntza-emaileak justifikaziorako epea luzatu ahal izango du, inoiz ez epe horren erdia baino gehiago, baldin eta horrek kalterik eragiten ez badie hirugarrenen eskubideei.

5. Justifikaziorako epea igarotzen bada justifikazioa aurkeztu gabe administrazio-organo eskudunari, organo horrek onuradunari eskatuko dio justifikazioa aurkezteko hamabost egun balioduneko epe luzaezinean. Epe horretan justifikaziorik aurkezten ez bada, dirulaguntza itzultzeko eskatu eta, hala badagokio, zehapen-espeditentea irekiko da. Justifikazioa epe horretan aurkezteak ez du onuraduna salbuetsiko legezkiokkeen zehapenetatik.

30. artikulua.— Justifikazio-moduak

1. Justifikazioa egingo da dagokion deialdian edo hitzarmenean ezarritako moduan, modalitate hauetakoren baten arabera:

- Justifikazio Kontu Arrunta.
- Justifikazio Kontua, auditorearen txostena aurkeztuta.
- Justifikazio Kontu Sinplifikatua.

2. Oro har, dirulaguntzaren onuraduna den pertsonak edo erakundeak aurkeztu beharko du gastuaren justifikazio-kontu arrunta, deialdian edo hitzarmenean beste justifikazio-sistema bat ezarri ezean.



3. Alkatetzak onartu beharko ditu justifikazio-modalitateei dagozkien formularioak, Kontu Hartzaitzaren txostena jaso ondoren, udal-dirulaguntzen kudeaketan sor daitezkeen premia aldakorretara egokitzeko.

31. artikulua.— Justifikazio Kontu Arrunta

Justifikazio-kontu arruntak dokumentu hauek barne hartuko ditu gutxienez:

- a) Eginiko proiektuaren azalpen-memoria, eginiko jarduerak eta lortutako emaitzak azalduta. Honako hauek erantsiko zaizkio:
 - Dirulaguntzaren xede den jardueran eginiko azterlan, programa, argitalpen, iragarpen-kartel eta dokumentazio grafiko eta idatzi guztien aleak.
 - Proiektuak emakumeen eta gizonen egoeran izan duen eragina ezagutzeko eta diruz lagundutako jarduerak horretarako aukera ematen badu, deialdiek onuradunei eskatuko diete sexuaren edo generoaren arabera banakatuta emateko eginiko jarduerari buruzko informazioa.
 - Deialdian edo hitzarmenean aipatutako gainerako agiriak.
- b) Jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, justifikazio-kontu arruntaren ereduaren arabera. Atal hauek izango ditu:
 - 1: Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako justifikazioa.

Atal hau beteko da erakunde publiko edo pribatu batek baino gehiagok finantzatzen badute proiektua edo jarduera, edo erakunde onuradunaren baliabide propioekin finantzatzen bada.
 - 2: Diruz lagundutako proiektuari dagokion gastuaren frogagiriaren zerrenda.

Atal hau beteko da justifikatzeko udal-dirulaguntzari egozten zaizkion proiektuaren gastuak, gastu-motak erlazionatuta hartzekodunaren identifikazioarekin, kontzeptuarekin, datarekin eta zenbatekoarekin. Era berean, hala badagokio, aurkeztuko dira nominak eta gizarte-aseguruak, fakturak eta trafiko juridiko-komertzialean froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak, bai eta haien ordainketa egiaztatzen duten dokumentuak ere.

Ordainketak eskudirutan egiteko, kontuan hartuko da lege ezarritako muga.

Hartu-agiriak onartuko dira soil-soilik beste modu batean egiaztatu ezin direnean eginiko jarduerak. Nolanahi ere, hartu-agiria sinatuko duen pertsona ez da izango enpresaburua edo profesionala, hala balitz faktura egin eta entregatu beharko lukeelako.
 - 3: Proiektuaren/jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantzea
 - 4: Gastuen, dieten eta bidaien banakako likidazioa.

Bidaia-gastuak, dietak, joan-etorriak, mantenua etab. justifikatuko dira, eta gastua justifikatzen duten merkataritza-agiriak erantsiko dira (garraiobideen txartelak, tiketak, fakturak...), horiek baitira zenbatekoa zehazteko oinarria.
 - 5: Erantzukizunpeko adierazpena, honako hau adieraziko duena:
 - Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburua betetzearen ondorioz sortu direla eta Basauriko Udalak finantzatu dituela.
 - Onuradunak proiektua garatzeko soldatapeko langilerik ez duela.
 - Pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerari dagokion zatian egozten dizkion zeharkako kostuak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera, benetako egozpena ezingo delarik izan deialdian edo hitzarmenean jasotako ehunekoa baino handiagoa.
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza edo diru-sarrerara batzuk, zenbatekoa eta jatorria adieraziz, edo, hala badagokio, proiekturako beste dirulaguntzarik eskatu ez duela eta jaso ez duela.

**32. artikulua.— Justifikazio Kontua, auditorearen txostena aurkeztuta**

Deialdiak edo hitzarmenak ezarri ahal izango du aurreko artikuluan aipatutako memoria ekonomikoan sartu beharreko dokumentazioa murrizteko aukera, betiere justifikazio-kontuarekin batera aurkezten bada Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren (ICAC) Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jarduneko gisa inskribatuta dagoen kontu-auditore baten txostena.

Deialdiak edo hitzarmenak zehaztuko du memoria ekonomiko laburtuaren edukia, gutxienez jasoko badu ere diruz lagundutako jardueren gastuen egoera adierazgarria, behar bezala multzokatuak, bai eta, hala badagokio, hasieran aurrekontuan sartutako zenbatekoak eta izandako desbideratzeak ere.

33. artikulua.— Justifikazio Kontu Sinplifikatua

1. 60.000 eurotik beherako dirulaguntzetan, justifikazio-kontu sinplifikatua erabiliko da justifikazio-sistema gisa.

2. Justifikazio-kontu sinplifikatuak gutxienez jasoko ditu:

a) Eginiko proiektuaren azalpen-memoria, eginiko jarduerak eta lortutako emaitzak azalduta, justifikazio-kontu arruntaren eduki berberaz.

b) Jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, justifikazio-kontu sinplifikatuaren ereduaren arabera. Atal hauek izango ditu:

1) Diruz lagundutako jarduerari lotuta eginiko gastuen zerrenda, honako hauek zehaztuta: kontzeptua eta egiaztagiraren identifikazioa (faktura- edo nomina-zenbakia, etab.), hartzailea/hornitzailea, zenbatekoa eurotan eta ordainketa-data, dagozkion dokumentuen kopia erantsita.

2) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren zerrenda, diru-sarrera publiko edo pribatu guztiak zehaztuta, diruz lagundutako jarduerak egiteko lorturiko bazkideen kuoten ekarpenak barne. Adieraziko dira zenbatekoa, diru-sarrera zein erakundetatik datorren, administrazio publikoen eta erakunde pribatuen edo publikoen dirulaguntzak, eta beste diru-sarrera batzuk, dagozkion dokumentuak erantsita.

3) Erabili ez diren zenbatekoak itzultzea, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa likidatzeko.

4) Erantzukizunpeko adierazpena, honako hau adieraziko duena:

— Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburua betetzearen ondorioz sortu direla eta Basauriko Udalak finantzatu dituela.

— Onuradunak proiektua garatzeko soldatapeko langilerik ez duela.

— Pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerari dagoen zatian egozten dizkion zeharkako kostuak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera, benetako egozpena ezingo delarik izan deialdian edo hitzarmenean jasotako ehunekoa baino handiagoa.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza edo diru-sarrera batzuk, zenbatekoa eta jatorria adieraziz, edo, hala badagokio, proiekturako beste dirulaguntzarik eskatu ez duela eta jaso ez duela.

3. Nolanahi ere, organo kudeatzaileak egiaztatuko ditu egoki iritzitako frogagiriak, deialdian edo hitzarmenean ezarritako laginketa-tekniken bidez, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela frogatzeko. Horretarako, hautatutako gastu-frogagiriak bidaltzeko eskatuko dio pertsona edo erakunde onuradunari.

34. artikulua.— Justifikazio-prozedura

1. Justifikazioa aurkeztuko da Udaleko Arlo, Atal edo Bulegora edota erakunde autonomora zuzendutako idazki bidez, eta dagozkion agiriak, kontabilitate-egoerak edo justifikazio-kontuak erantsiko dira.

2. Txosten teknikoa egin eta espedientea fiskalizatu ondoren, gaiaren arabera eskumena duen Informazio Batzordeari aurkeztuko zaio, eta batzorde horrek aztertuko du



aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa eta irizpena egingo du dagokion proposamena-rekin, aurkeztutako egiaztagiriak edo agiriak baliozkotzat joz edo onuradunak jasotako dirulaguntza osoa edo haren zati bat itzultzea proposatuz. Alkatetzak ebatziko du Informazio Batzordearen proposamenaren arabera, ebazpen arrazoitu bidez haren irizpidetik aldentzea erabaki ezean.

3. Onuradunari ez zaio beste dirulaguntzarik emango behar bezala justifikatzen ez baditu aurretik jasotakoak.

VI. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

35. artikulua.— *Dirulaguntzak ordaintzea*

1. Dirulaguntza ordainduko da jarduera, proiektua, helburua edo jokabidea gauzatu dela justifikatu ondoren.

2. Deialdiak edo hitzarmenak hala adierazten badu, konturako ordainketak egin ahal izango dira. Konturako ordainketa horiek ekar dezakete diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko erritmoari dagozkion ordainketa zatikatuak egitea, eta aurkeztutako justifikazioaren zenbateko baliokideaz ordainduko da.

3. Deialdiak edo hitzarmenak hala jasoz gero, ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira. Hala, funtsak entregatuko dira justifikazioaren aurretik, dirulaguntzari dagozkion ekintzak gauzatzeko beharrezko finantzaketa gisa.

4. Dirulaguntza ordainduko da banku-transferentzia bidez, pertsona edo erakunde onuradunak eskaeran adierazitako kontu korrontean.

5. Dirulaguntza ez da ordainduko pertsona edo erakunde onuradunak Udal honek emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatzeke badu, edo hala eskatu zaionean aurretik dirulaguntzaren bat itzuli ez badu. Edonola ere, ezin izango da dirulaguntzarik ordaindu pertsona edo erakunde onuradunak egunean ez baditu zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak, ez eta itzulketa-ebazpen baten ondorioz zorduna denean ere.

II. TITULUA

DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

I. KAPITULUA

DIRULAGUNTZA EMATEKO EBAZPENAREN BALIOGABETASUNA

36. artikulua.— *Dirulaguntza emateko ebazpenaren baliogabetasuna*

1. Emakida-ebazpena deuseztatzeko arrazoiak dira:

- Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikuluan adierazitakoak.
- Krediturik ez izatea edo nahikoa ez izatea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

2. Emakida-ebazpena deuseztatzeko arrazoiak dira ordenamendu juridikoaren gainerako arau-haustek; bereziki, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48. artikuluan jasotakoak.

3. Emakida-egintza aurreko zenbakietan aipatutako kasuren batean badago, organo emaileak ofizioz berrikusiko du edo, hala badagokio, kaltegarritzat jo eta aurkaratu egingo du, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. eta 107. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4. Deuseztatzeko deklarazio judizial edo administratiboak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra.



II. KAPITULUA

ITZULTZEA

37. artikulua.— *Itzultzeko arrazoiak*

1. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan aipatutako kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako zenbatekoak, dagozkion berandutze-interesekin, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa egin behar dela erabakitzen den egunera arte, edo zordunak itzulketa sartzan duen egunera arte, hura baino lehenagokoa bada.

2. Onuradunak edo erakunde laguntzaileak bere egitekoak neurri handi batean betetzen baditu eta konpromisoak betetzeko zalantzarik gabeko jarrera erakusten badu, itzuli beharreko zenbatekoa izango da dirulaguntzaren xede den jardueraren ez-betetze mailaren arabera, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

3. Ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak.

Betearazi gabeko aurrekontuaren ehunekoak %25ekoa edo txikiagoa bada, Udalari oniritzia eskatu ondoren, murriztu egingo da dirulaguntzaren zenbatekoa betearazi gabeko ehunekoan.

Betearazi gabeko aurrekontuaren ehunekoak %40tik gorakoa bada, Udalari oniritzia eskatu ondoren, murriztu egingo da dirulaguntzaren zenbatekoa betearazi gabeko ehunekoak gehi kopuru horren erdia.

Betearazi gabeko aurrekontuaren zenbatekoa %40tik gorakoa bada, erabateko ez-betetzetat hartuko da, eta itzuli egin beharko dira jasotako kopurua guztiak eta dagokion berandutze-interesa.

4. Era berean, ordenantza honen 16. artikuluko 2. apartatuan aipatutako kasuan, itzuli egin beharko da diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean lorturiko soberakina, bai eta dagokion berandutze-interesa ere.

III. KAPITULUA

PRESKRIPZIOA, ITZULTZERA BEHARTUTAKO PERTSONAK ETA ITZULTZEKO PROZEDURA

38. artikulua.— *Preskripzioa, itzultzera behartutako pertsonak eta itzultzeko prozedura*

Itzulketa aitortzeko edo likidatzeko eskubidearen preskripzioari, horretara behartuta dauden pertsonen eta prozedurari dagokienez, aintzat hartuko da dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean eta administrazio-prozedura erkidean ezarritakoa.

III. TITULUA

DIRULAGUNTZEN FINANTZA-KONTROLA

39. artikulua.— *Udalaren finantza-kontrolaren eskumena*

Udaleko Kontu Hartzaitzari dagokio Basauriko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

IV. TITULUA

DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

40. artikulua.— *Arau-haustek eta zehapenak*

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak dira Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean tipifikatutako ekintzak eta ez-egiteak, eta zigortuko dira aintzat harturik Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Euskal Autonomia Erkide-



goko Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen printzipioak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria. — **Publizitatea eta lehia behar duten diruzko sariak eta bekak, hezkuntza, kultura, zientzia edo beste arlo bazuetoakoak.**

1. Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Sariak eta bekak emateko onartutako deialdiak, onuradunak aurretik eskatuta, arautuko dira xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera. Halakorik ezean, azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta haren erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

2. Publizitatea

Sarien eta beken deialdiak argitaratuko dira Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, bai eta deialdia egiteko eskumena duen organoak ezartzen dituen moduan eta bitarteko bidez ere.

3. Parte-hartzaileen betekizunak eta betebeharrak

Deialdietan parte hartzeko, pertsona fisikoek, juridikoek edo erakundeek, haien baldintza espezifikoak betetzeaz gain, egiaztatu egin beharko dute, erantzukizunpeko adierazpen bidez, bete egiten dituztela ordenantza honen 9. artikuluan pertsona edo erakunde onuradun izateko ezartzen diren gainerako baldintza orokor guztiak.

Balorazio Epaimahaiaren proposamenaren arabera saria emateko erabakia hartu aurretik, egiaztatu egin beharko da betetzen direla zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateari eta dirulaguntzen itzulketei buruzko baldintzak.

4. Deialdiaren edukia

Sarien eta beken deialdiek honako hauek jasoko dituzte gutxienez:

- Xedapen Gehigarri honetan ezarritakoa deialdian aplikatuko dela adieraztea.
- Deialdiaren xedea eta helburua.
- Sariak eta bekak zein aurrekontu-kredituri egotziko zaizkion.
- Eman beharreko sarien eta beken zenbatekoa.
- Parte-hartzaileek bete beharreko baldintza espezifikoak eta horiek egiaztatzeko modua.
- Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunen aipamena.
- Parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak egiaztatzeko agiriak aurkezteko modua, epea eta lekua, eta saria emateko ebaluatu beharreko lanak, obrak, dokumentazioa edo beste edozein ekintza edo adierazpen aurkezteko modua, epea eta lekua.
- Sariak eta bekak emateko balorazio-irizpideak.
- Deialdiaren balorazioa deialdian ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera egingo duen epaimahaiaren osaera, dagokion epaia emango duena. Epaimahaiaren erabakiak aktan jasoko dira, eta dirulaguntzen kide anitzeko organo gisa arituko da era honetako deialdietan.
- Sariak eta bekak emateko prozedura, haien instrukzioari, ebazpenari eta emateari buruzko izapideak azalduta.
- Deialdian kontrakorik adierazi ezean, ebazpen-proposamenean ez da entzunaldirik egingo, prozeduran ez baita kontuan hartzen hautagaiek aurkezturiko egitate, alegazio eta frogez gain beste ezer.
- Ebazteko eta jakinarazteko epea.
- Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duen ala ez adieraztea; bestela, zein organoren aurrean jarri behar den errekurtsioa.



- n) Sariak eta beka eman direla jakinarazteko edo argitaratzeko bidea.
- o) Deialdian parte hartzeak haren oinarri guztiak onartzea dakarrela adieraztea.
- p) Sariak eta beka ordaintzeko sistema.

5. *Aurrekontuak izapidetzea eta sariak eta beka ordaintzea*

Sariak eta beka emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa izatea, bai eta gastua baimentzea ere, deialdia onartzeko erabakiaren bidez.

Saria hautagai zehatz bati emateko proposamena Balorazio Epaimahaiak egingo du, eta organo emaileari helaraziko dio proposamena instrukzio-zerbitzuak, txosten teknikoarekin batera. Txosten horretan, espresuki adieraziko da eskura dagoen informazioaren arabera onuradunak betetzen dituela saria eskuratzeko baldintza guztiak, eta egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta itzulketa bidezko ebazpenagatiko zorrak ere, ordenantza honen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Proposatutako hautagaiak ez badu egiaztatzen sariaren onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituela, erabaki ahal izango da sariaren irabazle izendatzea inolako diru-kopururik jasotzeko eskubiderik gabe.

Ordainketa egin aurretik, dagokion atxikipen fiskala egingo da obligazioa aitortzeko kontabilitate-agirian, indarreko legeriak hala ezartzen duenean.

Saria eskudirutan jasoko duenaren aldeko betebeharra aitortzen duen ebazpenak espresuki jaso beharko du egin beharreko atxikipen fiskala, indarreko legeriak hala ezartzen duenean.

6. *Sarien eta beken justifikazioa*

Deialdiak jaso ahal izango ditu ordenantza honen 30. artikuluan jasotako bestelako justifikazio-moduak, eta modu horietan saria edo beka lortu izanaren justifikazioa egingo da soil-soilik lan saritua edo bekaduna egin izanaren ziurtagiri bidez.

7. *Hautagaien eta sarituen edo bekadunen zerrenda jendaurrean jakinaraztea*

Sarituen edo bekadunen zerrenda argitaratzean, bai eta saria edo beka jaso ez dutenen edo baztertuak izan direnen zerrenda argitaratzean ere, kontuan hartuko da proportzionaltasun-printzipioa (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan aipatua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa), inolako kalte-galerarik izan ez dezaten, saria edo beka lortu ez izana jendaurrean jakinarazteagatik, bereziki saririk edo bekarik jaso ez duten pertsonak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen iragankor bakarra. — *Prozeduren araubide iragankorra*

1. Ordenantza hau indarrean sartzean hasita dauden dirulaguntzak emateko prozedurei aplikatuko zaie prozedura hastean indarrean dagoen araudia. Hori horrela, lehia-araubidez emandako dirulaguntzen kasuan, prozedura hasitzat hartuko da deialdia argitaratzen den unetik; zuzenean emandako dirulaguntzen kasuan, emateko ebazpena ematen den edo hitzarmena sinatzen den unetik.

2. Finantza-kontrolako, itzulketako eta egintzak berrikusteko prozedurak aplikatuko dira indarrean sartzen diren unetik beretik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Baliogabetu egiten da Udal Dirulaguntzak emateko Udal Ordenantza, 2004ko abenduaren 28an behin betiko onartu eta 2005eko urtarrilaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (14. zk.) argitaratu zena.



AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa. — Araubide juridikoa

Ordenantza honetan aurreikusi gabeko alderdi guztietarako, aplikatuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako erregelamendua, eta, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.

Azken xedapenetako bigarrena. — Indarrean jartzea

Ordenantza hau indarrean jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost egun baliodunera.



I. ERANSKINA

DIRULAGUNTZEN XEDEAREN DEFINIZIOA

17.2.a) artikulua araberan, ordenantza hau hartua izan dadin Basauriko Udalak ematen dituen dirulaguntzen oinarri arautzaile orokortzat, ondoko taulan adibide gisa aipatzen dira Basauriko Udalak gehien ematen dituen dirulaguntzen xedeak.

Deialdiaren xedea	Arloa
<p>Kultura, kirola, aisia eta denbora libre hezitzailea sustatzea haurtzaroan eta gaztaroan. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako xede hauek dituztenak, adibide gisa: Laguntzak era honetako programak garatzen dituzten denbora libreko talde eta/edo elkarteei. Laguntzak Udalak eta bere erakunde autonomoek antolatutako jardueretan parte hartzeagatik eratorritako garraio gastuak ordaintzeko. Laguntzak Eskola kirola sustatzeko eskolaz kanpoko ordutegian eta ikastetxean bertan. Ikasleen gurasoen parte hartzea sustatzea hezkuntza proiektuaren kalitatea hobetzeko ekimen hezitzaileetan.</p>	Haurtzaroa eta Gazteria Hezkuntza
<p>Kirola sustatzea udalerriko herritarren artean eta laguntza ematea udalerriko klubei. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek, adibide gisa: Kirol-elkarteei eta haiek antolatutako jarduera egonkorrei kudeaketa erraztea, jardueren urteko programaren gastuak finantzatzuz. Kirol-ekitaldi puntualen antolamendua eta gauzatzea sustatzea Basaurin egiten direnean.</p>	Kirolak
<p>Kultura sustatzea, oro har. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek, adibide gisa: Era guztietako kultura-jarduerekin (antzerkia, era guztietako kultura-lehiaketak, etab.) lotutako elkar-egintza sustatzea</p>	Kultura
<p>Udalerrian euskararen erabilera sustatzea, Basauriko Udalaren Euskara sustatzeko Ekintza Plana beteaz. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek, adibide gisa: Euskararen erabilera sustatzea udalerriko irabazi-asmorik gabeko elkartean eta erakundeetan irudi publikoan. Euskararen ikaskuntza sustatzea HABEk homologatutako zentroetan emandako ikastaroetan, Euskara sustatzea eta bultzatzea merkataritza-, ostalaritza- eta enpresa-sarean. Denbora libreko begiraleen formakuntza euskaraz sustatzea. Euskarazko gidabaimena sustatzea. Ikastetxeetan garatzen diren jarduerak sustatzea Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko Udalak antolatutako programetan parte hartzeko.</p>	Euskara
<p>Aldizkakoak ez diren gizarte-laguntzak ematea gastu zehatzei, arruntei edo bereziei aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez duten pertsonen, gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek, adibide gisa: Gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL) Aldizkakoak ez diren Udal Laguntzak (AEUL).</p>	Gizarte politika
<p>Laguntzak ematea kolektibo jakin batzuei, beren inguruabarrengatik zaurgarritasun-egoeran daudena edo babestu behar direnak. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek, adibide gisa: Laguntza udalerriko adinekoen elkarteei, adineko pertsonen esparruan gizarte- eta kultura-jarduerak egiten jarraitu ahal izan dezaten. Pertsona ezinduen, gaixo kronikoen eta izaera sozialeko beste gaitz batzuk dituzten pertsonen elkar-egintza jarduerak garatu eta egin ditzaten sustatzea. Tratu-berdintasuna eta jatorriagatiko diskriminaziorik eza, kulturen arteko bizikidetzeta eta etorkinen inklusioa sustatzen duten jarduerak sustatzea. Basauriko Emakumeen esparruan elkar-egintza sustatzea, berdintasuna sustatzeko eta esparru guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko jarduerak egiteko.</p>	Política Social
<p>Garapenerako lankidetzeta hirugarren herrialdeetan. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek, adibide gisa: GGKEen jarduerak sustatzea, garapenerako lankidetzeta-proiektuak egiteko Hego Globaleko herrialde eta lurraldeetan. Gizarte eraldatzeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-ekintzak, Basauriko biztanleei edo talde espezi-fikoei zuzenduak, herrialde pobretuen egoerari, hori eragiten duten arrazoiei eta hura gainditzeko egiten ari diren ahaleginei dagokienez. Elkartasun ekonomikoa behar duten hondamendi humanitario edo larrialdietarako laguntzak</p>	Garapenerako lankidetzeta



Deialdiaren xedea	Arloa
Basauriko merkataritza sustatzea, lehiakortasuna eta tokiko kontsumoa hobetzeko laguntza emanez. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek, adibide gisa: — Saltokien, jardueren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzeko eta berrikuntza sustatzeko laguntzak, beren jarduerari eusten laguntzeko. — «Basauri bonua», tokiko ekonomia sustatzeko, udalerriko saltokietan, ostalaritzan eta jendearentzat irekita dauden establezimenduetako zerbitzuetan kontsumoa sustatuz.	Merkataritza
Enplegua sustatzea lehentasunezko arreta behar duten kolektiboetan. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek, adibide gisa: Euskadiko hirugarren sektore sozialeko irabazi-asmorik gabeko erakundeek garatutako jarduerak sustatzea, baldin eta udalak aurkeztutako eta Lanbidek "Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektuak. Lehentasunezko arretako kolektiboak" deialdiaren esparruan onartutako programak hitzarmen bidez gauzatzen badituzte	Enplegua
Hirigintza jasangarria, hiri-erreforma eta etxebizitzaren hobekuntza sustatzea, oztopo arkitektonikoak desagerraraziz. Bereziki eta egon litezkeen beste deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek, adibide gisa: — Bizitegi-higiezinetan igogailuak edo igotzeko plataformak instalatzeko laguntzak. — San Fausto kaleko 13. eta 15. zenbakiekin identifikatutako bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzak.	Lurralde politika